

XABIER lehengusuaren ipuina




Hona hemen Xabier lehengusuak arratsalde batez bazkalostean kontatu zidan ipuina.

Bazen behin haur baxu-baxu bat txikia ez izateko hazi nahi zuena. Eta hazi egin zen gogotik buruarekin zerua ukitu zuen arte.

Orduan, honela esan zion bere buruari: “Ez dut hain altua izan nahi, usin egiten dudan bakoitzean hodeiak uxatzen baititut. Gainera, hegazkinak jo egiten dituzte nire bekainak, eta eguzkiak erre egiten dizkit belarriak”. Eta berriz hasi zen txikitzen eta eltxoak baino txikiago geratu zen.





Orduan, honela esan zion bere buruari:
“Ez dut hain txikia izan nahi,
ibiltzean kakalardo guztiek zapaltzen binaute.
Gainera, belarra begietan sartzen zait eta
euria egitean, berriz, tanta bakar batek bustitzen nau”.

Beraz, zen bezalakoa izatea erabaki zuen,
eta munduak horrela maitatuko zuela.
Eta jendeari galdetzean honela erantzuten zioten:
“Guztiok maite zaitugu, onena zarelako”.
Oso pozik jarri zen orduan eta, harrez gero,
oso zoriontsu izan zen bere munduan.

Beraz, ez ahaztu, zeure burua maitatu behar duzula,
zarenaz gozatu eta besteekin partekatu.
Eta horixe da Xabier lehengusuak arratsalde batez
bazkalostean kontatu zidan ipuina.

